

## 15-18 urtekoentzako OTOITZA

---

### Irakurri eta gogoetarako:

Bukatu da sinodalitatearen sinodoaren lehen saioa. Baina zer da sinodalitatearen kontu hori? Egia esan, ez da ezer berria. Eliza, sinodala da, baina ahaztuta genuen. Itun Zaharrea eta Jatorrizko Elizan praktika sinodalak ikus ditzakegu; gero, Vatikanoko II. Kontzilioak gogorarazi eta eguneratu zituen. Eta orain Frantzisko aita santuak hauek berreskuratzea animatzen gaitu.

Baina zer esan nahi du sinodalitateak? Hau azaltzeko irudirik onena Sinodoaren aretoa da: mahai-inguruetan eserita dauden pertsona taldeak, elkarrekin hitz egiten. Ez telebistako eztabaidetan ikusi ohi ditugun elkarrizketak, baizik eta Jainkoaren Hitza erdian dela, otoitz, bake, askatasun, alaitasun, lasaitasun, eta anaitasun giroan, Jainkoaren erreinua nola bizi elkarrekin eztabaidatuz ematen diren elkarrizketak. Elizan guztion partaidetza handiagoa izateko eta gure misioa emankorragoa egiteko egin beharko genukeenaren inguruko eztabaidak.

*«Sinodalitateak berekin dakar batzarrean biltzea eliza-bizitzaren maila guztietan, elkarri entzutea, elkarrizketa, komunitate-sentimendua eta adostasuna, Espirituan bizirik dagoen Jesus presente egotearen adierazpen gisa, eta erantzukizun partekatua onartzea .» (Batzar Sinodalaren 1. bileraren laburpen-dokumentua).*

Horregatik, Eliza izateko modu bat da, non autoritatea ez den boterea, zerbitzua baizik, non guztion ahotsak Jainkoaren Herri leialaren fedearen berezkotasuna bilatzera garamatzan, non bataiatu guztiek leku bat duten. Erronka handia. Ezinezko misioa, gure indarrekin bakarrik egin nahi badugu. Hemendik dator otoitzaren eta graziaren garrantzia.

Eta guzti hau zergatik? Izan ere, sinodalitatea “Trinitatearen” irudia da, Aitaren, Semearen eta Izpiritu Santuaren arteko maitasun-harreman hori. Guztiok gaude parte hartzera deitua.

Sinodaltasunak, beraz, Jesusen estiloan gero eta gehiago bizitzeko Jainkoaren borondatearen etengabeko hausnarketara garamatza. Eta aukera pertsonal eta komunitario zehatzak dakartza: gure harrotasuna kentzea, umiltasuna, bihotza zabaltzea besteei lekua uzteko, pobreenen aurrerapenak, emakumearen duintasuna eta honek egiten duen ekarpena baloratzea, gure kristau taldeak sinodalagoak bihurtzea, egiaren eta maitasunaren arteko harmonia bilatzea, ingurumenaren zaintzaz arduratzea... Eta zer gehiago bururatzen zaizu zuri?

*Xiskya Valladares, rp*

### Elkarrekin abestu eta musikarekin otoitz egiten dugu amaitzeko:

[Himno Busquemos camino, Sinodo de la Sinodalidad - YouTube](#)